

Rudofskyren “Architecture Without Architects” ia mende erdi ondoren



Gako-hitzak:
herri-arkitektura.
Bernard Rudofsky,
Architecture Without Architects

Unai Fernandez de Betoño °

Bernard Rudofsky (1905-1988) Vienan hazi eta hezitako arkitekto doktore moraviarrak kontu arruntei buruz idatzi zuen ezohiko ikuspuntu pertsonalarekin. Bere idazki ugarien artean, 1947ko *Are Clothes Modern?* (Jantziak modernoak al dira?), 1965eko *The Kimono Mind* (Kimono-adimena) eta 1971ko *The Unfashionable Human Body* (Modan ez den giza-gorputza) bezalako izenburu bereziak daude. Ipar Carolinako Black Mountain eskolan 1944an emandako hitzaldi baten izenburua ere ez zen makala: *How Can People Expect to Have Good Architecture When They Wear Such Clothes?* (Jendeak nola espero du arkitektura ona, halako arropak jantzita?). Hala ere, 1964ko *Architecture Without Architects. A Short Introduction to Non-pedigreed Architecture* (Arkitektoirik gabeko arkitektura. Pedigiririk gabeko arkitekturarako sarrera laburra) liburuagatik egin zen ezagun, batez ere.

Architecture Without Architects ez da liburu arrunta. Liburua baino, izen bereko erakusketaren katalogoa da, Rudofskyk berak New Yorkeko MoMA 1964ko amaieran antolatutako erakusketarena, hain zuzen ere. Herri-eraikuntzen argazkiak biltzen zituen erakusketa arrakastatsu hura 80 hiri ezberdinetan erakutsi zen ondorengo 11 urtetan, katalogoaren 100.000 ale inguru salduz.

Liburua, beraz, iruzkin laburrez hornitutako argazki-katalogo bat da, hitzaurre ideologiko bat duena, non Rudofskyk helarazten duen ideia nagusia zera den: **unibertsitate-hezkuntza berezirik gabeko jendeak ere eraiki izan du historian zehar, baita arkitekto ofizialek baino zentzu komun gehiagoz eraiki ere.**

Gatozen liburu xeheki aztertzeraz (1), ia mende erdi ondoren, berraztertzea Euskal Herriko adibide anonimoekin ilustratuz.

Hasierako adierazpen biribila

Derrigorrezko eskerren eta hitzaurrearen artean, luzatu gabe, Rudofskyk bere tesia laburbiltzen du hurrengo adierazpen biribilean: “*Herri-arkitekturak ez ditu modaren zikloak jarraitzen. Ia aldaezina eta hobezina da, baren xedea perfekzioa baita. Oro bar, eraikuntza indigenaren formen eta eraikuntza-*

metodoen jatorria iraganean galdu da”. Hitzak Mediterraneoko ohiko etxe baten argazkiak ilustratzen ditu. Berdin-berdin txertatu zitekeen Euskal Herriko baserri baten argazkia.




XVIII. mendeko Arrillaga Haundi baserria, Usurbil, Gipuzkoa / Indalezio Ojanguren (CC-BY-SA)

Hitzaurrea baino, argazkiaurrea

Zazpi orrialde eskaseko hitzaurrea da benetan liburuaren idazki bakarra, gainerakoa argazkiak eta iruzkin laburrak baitira. Bertan, Rudofskyk salatzen du arkitekturaren historia ofiziala adibide fin gutxi batzuen hautaketa hutsa dela. Europarzalegia izaki, gainera, monumentuez eta boteretsuenen eraikinez soilik arduratu dela, gainerako herritar xumeen etxeak alde batera utziz. Hortik bere aldarria, pedigiririk gabeko herri-arkitektura anonimo, espontaneo eta landatarraren aldekoa.

Jarraian, herri-arkitekturaren jatorrien bila aritzen da Rudofsky. Lehenik, Biblian murgiltzen da, harrigarria bada ere; horretarako, Kainek sortutako Henok hiria, Noek egindako ontzia eta Semen oihal-etxolak ditu hizpide. Bigarrenik, animalien eraikuntzez mintzo da, kastoreak eta tximinoak aipatuz; Rudofskyren ustez, babesak eraikitzekeo ideia animaliak behatu ondoren bururatu zitzaion gizakiari, eta ez alderantziz. Eta hirugarrenik, naturak berak egindako eraikuntzak aztertzen ditu: leizeak.

(1) Jatorrizko bertsiua 1964an argitaratu zuen, ingelesez, New Yorkeko MoMA museoak. Gaztelerazko itzulpena 1973an argitaratu zen, Argentinan, Editorial Universitaria de Buenos Aires argitaletxean. Azken bertsiio honetan oinarritzen da idazki hau.



VI. mendeko Santorkaria leize artifizialak, Lañu, Trebiñu, Araba / Agustin Azkarate

Ondoren datoz iruzkinik aberatsenak, ziurrenik, arkitektoek sinatutako lanak eta arkitektura anonimoa aurrez aurre jartzen dituenan. Arkitekturaren historia ortodoxoan, Rudofskyren ustez, protagonismoa norbanakoarengan ezarri da, arkitektoarengan; herri-arkitekturaren oinarria, aitzitik, taldearen etengabeko auzolana da. Herri-arkitekturak, arkitektoaren diseinuak ez bezala, ez du natura konkistatzen: klimara egokitzen da, topografiaren berezko ezaugarriak onartuz. Arkitektoari garrantzi handiegia eman omen zaio, arkitektura anonimoaren kaltetan. Arkitektoen gehiengoak, gainera, bere negozioetan dago zentratuta, bere prestigioan. Herri-arkitekturaren edertasuna ez da ustekabekoa; gizatiarra da, eta arazo praktikoak ebazteko zentzu berezi baten emaitza, belaunaldi belaunaldi oinordetu dena.

Herri-arkitekturak ondutako arkitektura-elementuak ere aztertzen ditu, ondorengo argazkien —katalogoaren benetako funtsa— aurkezpen moduko zerrenda bat osatuz: pergolak, oihalak, arkuteriak eta garau-biltegiak. Elementuez gain, Rudofskyk bestelako kategoriak ere biltzen ditu, sailkapena pixkat nahasiz: kenketaz lortutako arkitektura, arkitektura errudimentarioa, nomaden eraikuntzak, arkitektura protoindustrialak eta lurpeko eraikuntzak.

Argazkiaurrea amaitzeko, hausnarketa sakona eta gaurkotasun handikoa: aurrerapenak ez du herri jakintsua itsutzen; arkitekturaren —eta gizartearen— mugak ondo ezagutzen dituen herriak ez ditu aukeratzen bideragarriak ez diren soluzio teknikoak. Rudofskyrentzat, hortaz, aurrerapena ez dago familiaren ongizatearen gainetik.

Erakusketarako argazkiak

Esan bezala, Rudofskyren sailkapena nahasi samarra da; nahita, ziurrenik, zientifizismo tipologikoari ihes egiteko. Elementuak, kategoriak eta bestelako burutazio zorrotzak batera biltzen ditu Rudofskyk. Emaitza, hala ere, ederra bezain atsegina da.

Honakoak dira katalogoak aurkezten dituen sail nagusiak, letra larriz, Euskal Herriko adibide anonimoz ilustratuta:

HILENTZAKO ETXEA



IX. mendeko Argiñeta nekropolia, Elorrio, Bizkaia / euskadi.net

TROGLODITISMOA



VI. mendeko Santorkaria leize artifizialak, Lañu, Trebiñu, Araba / Isabel S.

NATURA ARKITEKTO GISA.



Atxulaur atea, Itxina, Orozko, Bizkaia / Paulo Etxeberria (CC-BY-NC-SA)

ARKITEKTURA-HABIAK.



Txolopeko artzain-babeslekua, Gorobel mendilerroa, Araba / Paulo Etxeberria (CC-BY-NC-SA)

MUINOETAKO HIRI-EREDUA.



Luxue, Nafarroa / Mairaga

Analisa: Rudofskyren "Architecture Without Architects" ia mende erdi ondoren

ARKITEKTURA NOMADA.



Abereentzako aterpetxoa, Gallarraga mendia, Bizkaia / Paulo Etxeberria (CC-BY-NC-SA)

BATASUN-ARKITEKTURA.



Lexardiko Borda, Itxina, Orozko, Bizkaia / Paulo Etxeberria (CC-BY-NC-SA)

GOTORLEKUA.



Aranguren dorretxea, Orozko, Bizkaia / Indalezio Ojanguren (CC-BY-SA)

KALE ESTALIAK.



Aguraingo arkupeak, Araba / Jabrus

LOGIAK.



Karrantzako Santecilla auzoko baserria, Bizkaia / Paulo Etxeberria (CC-BY-NC-SA)

GARAU-BILTEGIAK.



XVI. mendeko Agerre baserriko garaia, Bergara, Gipuzkoa

HERRITARRA ETA SINBOLIKOA.



Belar-metak, Munitibar, Bizkaia / Paulo Etxeberria (CC-BY-NC-SA)

INGENIARIK GABEKO INGENIARITZA.



Etxezarra trikuharria, Bilar, Araba / Asier Sarasua Garmendia (CC-BY-SA)

ZURA HERRI-ARKITEKTURAN.



XIX. mendeko Larraondo zerratagia, Zerain, Gipuzkoa / Aran Goierrri

HESIAK.



Biozkornako artegia, Aizkorri mendilerroa, Gipuzkoa / Paulo Etxeberria (CC-BY-NC-SA)

LANDA-ARKITEKTURA.



Abaraskak, Ubidea, Bizkaia / Paulo Etxeberria (CC-BY-NC-SA)

IGELT SEROA VERSUS ARKITEKTOA.



Ardiak Gaintzan, Nafarroa / Paulo Etxeberria (CC-BY-NC-SA)

